

IZEN-EMATE PROZESUA

IZEN-EMATEA NOLA OSATU:

Udako Ikastaroen izen-ematea online egingo da TKNIKAKo web orrian (www.tknika.eus) sartuz. Bertan, IKASTAROAK atalera jo eta “Euskal Herriko LHko Udako Ikastaroen III. Edizioa” atazan aurki daitezke ikastaroak.

Jarraitu beharreko **PAUSUAK** hauek dira:

- 1.- Izen-ematea egin nahi den ikastaroa aukeratu.
- 2.- Ikastaroko informazioa irakurri eta IZENA EMAN zanpatu.
- 3.- Orrian eskatzen diren datu GUZTIAK osatu.

Oharrak:

- Eskatzen diren eremuetako datuak NANean adierazten diren bezala idatzi.
- Ikastetxe atalean:
 - * EAEko LHko irakasleak: dagokion LH ikastetxea aukeratuko du.
 - * Empresa langilea edota beste erkidegoetako irakasleak: Zentru atalean “Otros” hautatu eta Oharrak atalean enpresako/ikastetxeko datuak adierazi (izena, helbidea eta telefono zenbakia).
- 4.- DBLO eta JIL klausulak irakurri eta baldintzak betetzen direla onartu.

5.- Amaitzeko GORDE zanpatu.

6.- Izena-eman duen pertsonak email bat jasoko du (izen-ematean adierazitako email helbidean) prozesua ondo burutu duela baieztatuz. Konfirmazio emaila jasotzen ez bada Tknikarekin harremanetan jarri (Esther Larrañaga 943.08.29.00 edo elarranaga@tknika.eus idatzi)

IZEN-EMATE DATAK ETA EPEAK:

- **Plaza kopurua:** 15 (gutxienez 10 pertsona / gehienez 15 pertsona)
- **Izena emateko azken eguna:** 2019ko ekainaren 7a
- **Ebazpena:** 2019ko ekainaren 10. Izena eman duten guztiei adieraziko zaie, posta elektronikoaren bitartez, ikastaroan onartuak edo itxaron zerrendan geratu diren.
- **Ordaintzeko azken eguna:** 2019ko ekainaren 16a
- **Formakuntza kostua:** ikastaro bakoitzean adierazita dago.

ZEINTZUK DIRA AUKERAKETA IRIZPIDEAK?

Izen-emateak, eskainitako plaza kopurua gainditzen badu, ikasle hautaketa honako irizpideak aintzakotzat hartuta egingo da:

- Izen-emate ordena kontutan hartuko da.
- Plaza kopurua honako hauen artean banatuko da:
 - Beste erkidegoetako LH irakasleak
 - EAEko LHko irakaslegoa

NOLA EGINGO DA ORDAINKETA?

2019ko ekainak 10ean persona orori adieraziko zaio ikastaroan zein egoeratan dagoen.

ONARTUAK izan diren pertsonak:

* **EAEko LHko irakaslegoak: formakuntza DOAKOIA da.** Tknikak, beharrezkoa ikusten badu, pertsona honi LHn irakasle lanetan ari dela adierazten duen justifikazioa eska dakiok.

* **Beste erkidegoetako irakaslegoak eta enpresak:**

- Ordainketa tanda bakarrean egingo da, matrikularen %100 ordainduz.
- Onartua izan den pertsonari emailaz igorriko zaio zein kontura egin behar den transferentzia.

- **Ordainketa epea: 2019ko ekainak 16a**

Zalantzarik izanez gero 943.08.29.00 telefonora deitu (Nerea)

ITXARON ZERRENDAN geratu diren pertsonak:

- Ikastaroa hasi aurretik, onartuen artean bajarik balego, formakuntza arduraduna, itxaron zerrendan geratu diren pertsonekin harremanetan jarriko da plaza lehen bait lehen ordezkatzeko.